



ZIZURKILGO UDALA

OHIKO OSOKO BILKURARAKO DEIA

Honen bidez, Ez Ohiko Osoko Bilkurarako deitzen dizut:

Eguna: 2013ko otsailaren 28a, osteguna

Ordua: 19:00

Tokia: Udaletxeko Osoko Bilkuren Aretoa

CONVOCATORIA A PLENO ORDINARIO

Por la presente le convoco a la Sesión de Pleno Extraordinario a celebrar:

Día: 28 de Febrero de 2.013, jueves

Hora: 19:00

Lugar: Salón de Plenos de la Casa Consistorial.

EGUNEKO AZTERGAIK

1.- AURREKO UDALBATZARRAREN AKTA ONARTZEA, BIDEZKOA BADA (2012.12.20).

2.- "TOLOSALDEA SAHARAREKIN ELKARTEA"ren MOZIOA.

3.- HUYCK WANGNER (PEROT)-eko LANGILEAK AURKEZTUTAKO MOZIOA.

4.- "BAI EUSKAL HERRIARI" HERRI EKIMENAK AURKEZTUTAKO MOZIOA.

5.- EMAKUMEEN NAZIOARTEKO EGUNA DELA ETA BILDUK AURKEZTUTAKO ADIERAZPEN INSTITUZIONALA.

6.- 197/2006 DOKTRINAREN (PAROT DOKTRINA) AURKAKO MOZIOA.

7.- ALKATEAREN DEKRETUAK JAKINARAZTEA (2012/207tik 2012/226ra eta 2013/1etik 2013/28ra).

8.- GALDE-ESKAKIZUNAK.

ORDEN DEL DIA

1.- APROBACION, SI PROCEDE, DEL ACTA DEL PLENO ANTERIOR (20.12.2012).

2.- MOCION DE "TOLOSALDEA SAHARAREKIN ELKARTEA".

3.- MOCION PRESENTADA POR LOS TRABAJADORES DE HUYCK WANGNER (PEROT).

4.- MOCION PRESENTADA POR "BAI EUSKAL HERRIARI".

5.- DECLARACION INSTITUCIONAL PRESENTADA POR BILDU ANTE EL DIA INTERNACIONAL DE LA MUJER.

6.- MOCION CONTRA LA DOCTRINA 197/2006 (DOCTRINA PAROT).

7.- COMUNICACION DE DECRETOS DE ALCALDIA (del 227/2012 al 233/2012 y del 1/2013 al 28/2013).

8.- RUEGOS Y PREGUNTAS.

Zizurkil, 2013ko otsailaren 26an.

Alkatea.



Zizurkil, 26 de Febrero de 2.013

El Alcalde.



ZIZURKILGO UDALA

**2013ko OTSAILAREN 28an
EGINDAKO OHIKO BILKURAKO AKTA**

**ACTA DE LA SESION ORDINARIA
CELEBRADA EL DIA 28 DE FEBRERO DE
2.013**

Partaideak/ Señores Asistentes:

ALKATEA / ALCALDE:

José María Luengo Zapirain Jauna (Bildu)

ZINEGOTZIAK/CONCEJALES:

Eva Usandizaga Mujika (Bildu)

Alaitz Ormazabal Goenaga (Bildu)

Aitor Sarasua Arruti (Bildu)

Aritz Esnaola Arruti (Bildu)

Aratz Alkorta Irazusta (Bildu).

IDAZKARIA /SECRETARIO:

José Ramón Eceizabarrena Garmendia

Udaletxeko Osoko Bilkuren Aretoan, bi mila eta hamahiruko otsailaren hogeita zortziko hemeretzi orduak direnean, Zizurkilgo Udaleko Udabatzak bildu da, Alkate jaunaren lehendakaritzapean eta goian aipatzen diren zinegotzien partaidetzarekin. Nerea Lizarraga Gabirondo (Bildu), Oscar Martínez Orive (P.S.E.-E.E./P.S.O.E.), Egoitz Sorozabal Iturain (E.A.J.-P.N.V.), Leire Zubeldia De Esteban (Bildu) eta M^a Angeles Lazkano Larrañaga (E.A.J.-P.N.V.) zinegotziak ez dira etorri.

Lehendakaritzaren aginduz bilkura hasi da eta Idazkariak jakinarazi du berau egin daitekeela legez ezarritako quoruma bertan dagoelako.

1.- AURREKO UDALBATZARRAREN AKTA ONARTZEA, BIDEZKOA BADA (2012.12.20).

Udalbatzak aho batez erabaki du 2012ko abenduaren 20an egindako Bilkuraren Akta onartzea.

En el Salón de Sesiones de la Casa Consistorial, siendo las diecinueve horas del día veintiocho de Febrero de dos mil trece, se reúne la Corporación del Ayuntamiento de Zizurkil bajo la presidencia del Señor Alcalde y con la asistencia de los Señores Concejales que arriba se citan, no asistiendo los concejales Nerea Lizarraga Gabirondo (Bildu), Oscar Martínez Orive (P.S.E.-E.E./P.S.O.E.), Egoitz Sorozabal Iturain (E.A.J.-P.N.V.), Leire Zubeldia De Esteban (Bildu) y M^a Angeles Lazkano Larrañaga (E.A.J.-P.N.V.)

Abierta la Sesión de orden de la Presidencia, el Secretario informa que la misma puede celebrarse por concurrir a ella el quórum legalmente establecido.

1.- APROBACION, SI PROCEDE, DEL ACTA DEL PLENO ANTERIOR (20.12.2012).

La Corporación, por unanimidad, acuerda aprobar el Acta del Pleno celebrado el día 20 de Diciembre de 2.012



ZIZURKILGO UDALA

2.- “TOLOSALDEA SAHARAREKIN ELKARTEA”ren MOZIOA.

Aurkeztutako Mozioa Akta honen I Eranskinean ikusi daiteke.

Mozioa ikusi ondoren, Udalbatzak dagokion bozketa egiten du.

Honen ondoren, Udalbatzak, Bilduren 6 batzarkideen aho batezko botuekin, aurkezturako Mozioa onartua izan da.

3.- HUYCK WANGNER (PEROT)-eko LANGILEAK AURKEZTUTAKO MOZIOA.

Aurkeztutako Mozioa Akta honen II Eranskinean ikusi daiteke.

Mozioa ikusi ondoren, Udalbatzak dagokion bozketa egiten du.

Honen ondoren, Udalbatzak, Bilduren 6 batzarkideen aho batezko botuekin, aurkezturako Mozioa onartua izan da.

4.- “BAI EUSKAL HERRIARI” HERRI EKIMENAK AURKEZTUTAKO MOZIOA.

Aurkeztutako Mozioa Akta honen III Eranskinean ikusi daiteke.

Mozioa ikusi ondoren, Udalbatzak dagokion bozketa egiten du.

Honen ondoren, Udalbatzak, Bilduren 6 batzarkideen aho batezko botuekin, aurkezturako Mozioa onartua izan da.

5.- EMAKUMEEN NAZIOARTEKO EGUNA DELA ETA BILDUK AURKEZTUTAKO ADIERAZPEN INSTITUZIONALA.

Aurkeztutako Mozioa Akta honen IV Eranskinean ikusi daiteke.

2.- MOCION DE “TOLOSALDEA SAHARAREKIN ELKARTEA”.

La Moción que se presenta es la que se refleja en el Anexo I del presente Acta.

Vista la Moción, la Corporación pasa a realizar la correspondiente votación.

Realizada ésta, la Corporación acuerda, por unanimidad de los 6 corporativos de Bildu, aprobar la Moción presentada

3.- MOCION PRESENTADA POR LOS TRABAJADORES DE HUYCK WANGNER (PEROT).

La Moción que se presenta es la que se refleja en el Anexo II del presente Acta.

Vista la Moción, la Corporación pasa a realizar la correspondiente votación.

Realizada ésta, la Corporación acuerda, por unanimidad de los 6 corporativos de Bildu, aprobar la Moción presentada

4.- MOCION PRESENTADA POR “BAI EUSKAL HERRIARI”.

La Moción que se presenta es la que se refleja en el Anexo III del presente Acta.

Vista la Moción, la Corporación pasa a realizar la correspondiente votación.

Realizada ésta, la Corporación acuerda, por unanimidad de los 6 corporativos de Bildu, aprobar la Moción presentada

5.- DECLARACION INSTITUCIONAL PRESENTADA POR BILDU ANTE EL DIA INTERNACIONAL DE LA MUJER.

La Moción que se presenta es la que se refleja en el Anexo IV del presente Acta.



ZIZURKILGO UDALA

Mozioa ikusi ondoren, Udalbatzak dagokion bozketa egiten du.

Honen ondoren, Udalbatzak, Bilduren 6 batzarkideen aho batezko botuekin, aurkezturako Mozioa onartua izan da.

6.- 197/2006 DOKTRINAREN (PAROT DOKTRINA) AURKAKO MOZIOA.

Aurkeztutako Mozioa Akta honen V Eranskinean ikusi daiteke.

Mozioa ikusi ondoren, Udalbatzak dagokion bozketa egiten du.

Honen ondoren, Udalbatzak, Bilduren 6 batzarkideen aho batezko botuekin, aurkezturako Mozioa onartua izan da.

7.- ALKATEAREN DEKRETUAK JAKINARAZTEA (2012/207tik 2012/226ra eta 2013/1etik 2013/28ra).

2012/227tik 2012/233ra zenbakia duen Dekretuen zerrendaren berri ematen da, 2012ko abenduaren 21etik 31ra Alkateak sinatutakoak, eta 2013/1etik 2013/28ra zenbakia duen Dekretuen zerrendaren berri ematen da, 2013ko ilbeltzaren 3tik otsailaren 22ra Alkateak sinatutakoak. Jatorrizkoak, Alkatearen Dekretu Liburuan jasota daude eta bertan aztertu daitezke.

Udalbatza jakinaren gainean geratu da.

Beste aztergairik gabe, eta hemeretzi orduak eta berrogeita bost minutuak direnean, Batzarra amaitu da eta honetaz guztiaz nik, Idazkariak, fede eta kontu ematen dut.

O.I.
ALKATEA.

Vº Bº
EL ALCALDE.



Vista la Moción, la Corporación pasa a realizar la la correspondiente votación.

Realizada ésta, la Corporación acuerda, por unanimidad de los 6 corporativos de Bildu, aprobar la Moción presentada

6.- MOCION CONTRA LA DOCTRINA 197/2006 (DOCTRINA PAROT).

La Moción que se presenta es la que se refleja en el Anexo V del presente Acta.

Vista la Moción, la Corporación pasa a realizar la la correspondiente votación.

Realizada ésta, la Corporación acuerda, por unanimidad de los 6 corporativos de Bildu, aprobar la Moción presentada

7.- COMUNICACION DE DECRETOS DE ALCALDIA (del 227/2012 al 233/2012 y del 1/2013 al 28/2013).

Se da cuenta del listado de los Decretos nº 227/2012 al 233/2012 firmados por la Alcaldía entre el 21 y el 31 de Diciembre de 2.012, y de los Decretos nº 1/2013 al 28/2013 firmados por la Alcaldía entre el 3 de Enero y el 22 de Febrero de 2.013, cuyos originales se conservan y pueden ser examinados en el Libro de Decretos de Alcaldía.

La Corporación se da por enterada.

Y sin más asuntos que tratar, y siendo las diecinueve horas y cuarenta y cinco minutos, se levanta la Sesión, de la cual, yo, el Secretario, doy fe y certifico.



I ERANSKINA -- ANEXO I

ZIZURKILGO UDALA

TOLOSALDEA SAHARAREKIN G.K.E

SAHARA BIZI



2013ko Urtarrilaren 23an

Saharar Errepublika Arabiar Demokratikoa (SEAD) aldarrikatu zeneko 37. urteurrenean, Tolosaldea sahararekin elkarteak XXXXXXXX/10 udalbatzari ondoko mozioa aurkezten dio hurrengo ohiko plenoan eztabaidatu bozkatu eta onartu dezan.

Udalbatza honek:

1.-Mendebaldeko Saharako lurralde okupatueta etengabe gertatzen diren manifestazio eskubidearen zanpaketa, atxiloketak, torturak eta tratu txarrak, bortxaketak, desagerketak, deportazioak eta orokorrean giza eskubideen aurkako erasoen ezbaierik gabeko salaketa eta gaitzespen bortitzena adierazten du.

2.-Mendebaldeko Sahararako Erreferendunaren Nazio Batuen Erakundearen Misioa (MINURSO) giza eskubideen arloko eskuduntzak izan dezan eskatzen du, Nazio Batuen erakundeak (NBE) munduan zehar hedaturik dauzkan misioen artean giza eskubideen arloa baztertzen duen misio bakarra izateari utzi diezaion.

3.-Mendebaldeko Saharako biztanleak, eurek askatunez egokien deritzoten naziotasunari eta biztanle orori, Mendebaldeko Saharakoak barne, dagokigun mugimendu askatasuna errespetatzea eta Mendebaldeko Saharako biztanleak zatitzen duen 2600km luze den latsaren harresia eraistea eskatzen du.

4.-Espainiar estatuko diputaduen kongresuak ebatzitakoa behingoz betetzea eta gerran aurkitzen diren estatuak, Marokokoa kasu, armak saltzea debekatzen duen ebazpena betetzea, hau da, bere legedia betetzea eskatzen du.

5.-Mendebaldeko Saharako baliabide naturalen lege kanpoko ustiatzeari uko egitea eta zehazki, Mendebaldeko Saharako urak bere baitan hartzen dituen artean, saharar arrantza bankuetan arrantza egiteko Europar batasuneko (EB) eta Marokoko estatuaren arteko ituna ez berritzea eskatzen du.

6.- Europar Batasuneko (EB) gainontzeko estatuarekin batera, Saharar Errepublika Arabiar Demokratikoaren (SEAD) autodeterminaziorako eta independentziarako eskubidea aitortzea eta nazioarteko zuzenbidean jasotako jurisprudenzian oinarrituz, Mendebaldeko Saharako deskolonizazio prozesua amaitzea eskatzen du.

7.-Saharar Errepublika Arabiar Demokratikoa (SEAD) aldarrikatu zeneko urteurrenarekin bat etorri, 2013ko Otsailaren 27an arratsaldeko 19.30tan Tolosako triangulo enparantzan tolosaldea sahararekin elkarteak, maroko saharatik at autodeterminazioa eta independentzia mendebaldeko sahararentzat lemapean, burutuko duen elkarretatzearekin bat egiten du.

8.-Saharar Errepublika Arabiar Demokratikoa (SEAD) aldarrikatu zeneko 37. urteurrenarekin bat etorri, 2013ko Otsailaren 27an Mendebaldeko Saharako bandera herriko udaletxean zintzilikatzea adosten du.

Adeitasunez

Tolosaldea sahararekin



II ERANSKINA -- ANEXO II

ZIZURKILGO UDALA

2013 OTS. - 8

ZIZURKILGO UDALA

TOLOSALDEKO UDALETXEETAN AURKEZTEKO
MOZIO PROPOSAMENA

HUYCK WANGNER (PEROT)-eko LANGILEEN ALDE

SARREREN ERREGISTROA

Zerbakia ASE

AURREKARIAK ETA ARRAZOIEN AZALPENA:

Zizurkilen kokatuta dagoen HUYCK WANGNER enpresa, lehen PEROT izena zuena, multinazional baten esku dago, zehazki XERIUM izeneko talde baten barruan dago. Multinazional honen jabeak estatubatuarrak eta alemaniarak dira. Papergintzako fabrikentzat egiten du lan Zizurkilgo lantegiak, tela metalikoak eginez.

Urtarrilaren 21ean, enpresako kontseilariak eta hauen abokatuak Donostian bilera batera deitu gintuzten, hartu behar zituzten neurrien berri emateko.

Azalpen labur batzuk eman eta gero, multinazionalaren abokatuek esan ziguten hartutako erabakia: Zizurkileko lantokian dauden 81 langileetatik 75 kaleratuak izango zirela. Honek, argi eta garbi, lantegiaren itxiera suposatzen du.

Emandako arrazoiak, nagusiki, bi izan ziren: batetik, papergintzaren sektoreak eta multinazionalak jasaten ari diren krisia, eta bestetik Zizurkilgo lantegian dagoen makinaria zaharkituta dagoela, eta hau berritzeko gehiegizko inbertsioa egin beharko litzatekeela (19 eta 24 milioi euro artekoa, haien esanetan). Hori zela eta, hemen egiten den lana beste herrialde batzuetako lantegietara eraman nahi zutela esan ziguten: batez ere Italiara, baina baita ere Alemania eta Austriara.

Guk, lehenengo momentutik, haiek ezarritako aurrekariak ez ditugula onartzen, eta errealitatearen zati garrantzitsuenak aipatu ez izana leporatu genien. Izan ere, egun hartan esan ez zigutena zera da:

+ Zizurkilgo lantegiak, krisia krisi, urtero benefizioak eman dituela.

+ Produktibitate ratioak ikusita ere, enpresa taldeko lantegirik hoberena dela, hau da, langile bakoitzeko produkzio gehien egiten duena.

+ Hemen erabiltzen diren makinaren aldaketa aspaldi aurreikusia zegoen. Makinaria dagoeneko amortizatuta dago eta urtez urte, lantegiak emandako benefizioez gain, diru kopuru bat makinaria berritzeko gordetzen joan dira urte guzti hauetan.

+ Hemengo langileen soldatak ere ez dira arazo, hau inoiz ez da arazo, nahiz eta beti aitzakiatzat erabili. Honen aurrean esan behar da produkzioa eraman nahi duten herrialdeetako lan-sariak askoz handiagoak direla.

Beraz, inongo zalantzarik gabe, eta dauzkagun datuen arabera, ondorio argi bat atera dezakegu:

Lantegi hau hustutzeko erabakia soilik estrategikoa izan da. Aurrera eraman nahi duten lekukotze edo berrantolaketa hau, oraindik diru gehiago irabazteko asmoz hartutako erabakia da, eta ez dute kontutan hartu nahi, 75 langile, 75 familia, kalean utzi nahi dituztela, lantegiak dirua ematen duen bitartean, produkzio maila hoberena duen bitartean eta orain egin beharreko inbertsioa aspaldi aurreikusita zegoen bitartean.



ZIZURKILGO UDALA

Multinazionalaren arduradunak, jakin badakite hartutako erabakia guztiz ulertezina eta mingarria dela, eta horren adibide, azken egunetan hartu dituzten neurriak eta jarrera ditugu:

+ Bilera egunaren aurreko astean, produkzio guztia enpresatik atera eta biltegi batzuetara eraman zuten.

+ Enpresako sarreran segurtasun pribatua jarri dute.

+ Enpresara sartzea debekatu digute.

+ Enpresarekin harremana duen guztia esternalizatu egin dute: Donostian zituzten abokatuen ordez Madrilgo abokatuak hartu dituzte, jarritako segurtasun pribatuko enpresa eta langileak kanpokoak dira, eta orain arte Zizurkilen egondako zuzendaritza ere kaleratua izan da. Hau da, bakarrik utzi nahi gaituzte, bitartekaririk gabe.

Erreforma Laborala egin zutenetik, langile klasearen aurkako eraso asko pairatu ditugu, eta kasu hau ez da salbuespena.

Madrilgo gobernuak inposatutako Erreforma Laboralak merkealdiak ekarri dituzte: lan-sarien, kaleratzeen eta lan-baldintzen merkealdiak!

PEROT-en kasuan, multinazionalak eskaintza honi erantzunez, bideragarria den lantegi bat ixtera etorri da, hemen egitea merkeago delako, beste leku batzuetan egitea baino.

ADMINISTRAZIO PUBLIKOEI ESKAKIZUNAK:

Arazoa eta konponbide beharra gizarteratu egingo dugu. Honetarako, beharrezkoa deritzogu, Institutio Publikoekin hurrengo puntuak, bakoitza ahal den neurrian, konpartitu, babestu edota laguntzea:

- 1. Greba mugagabeen jarraituko dugu, eta honekin batera etorriko diren hainbat eta hainbat ekintza burutuko ditugu.**
- 2. Beharrezkoa izango balitz, bide judiziala ere landuko dugu, hartutako erabakia guztiz neurrigabea delako.**
- 3. Institutio eta Administrazio Publikoen inplikazioa bilatuko dugu, arazo honi irtenbidea emateko modu asko daudelako, eta arazo honetan zer esanik badutelako.**
- 4. Enpresarekin negoziaketak egiten jarraituko dugu, hartutako erabaki ulergaitza alda arazteko asmoz.**

HUYCK WANGNER (PEROT)-eko langileak, Zizurkilen, 2013ko otsailaren 5ean.



III ERANSKINA -- ANEXO III

ZIZURKILGO UDALA

Bai Euskal Herriari

BAI EUSKAL HERRIARI herri ekimena
www.baieuskalherriari.org

NAZIOA GARA
Geurea Ikurriña!
INPOSAKETARIK EZ!

- MOZIOA -

ZIZURKILGO UDALA

2013 OTS. 25

SARREREN ERREGISTROA

Zenbakia 200

HITZAURREA

Ez gara mapetan agertzen, baina egunero egunkarietako azalak betetzen ditugu. Beste edozein lurralderen pareko gabela diote, baina gure hizkuntzan mintzatzen garenean ez gaituzte ulertzen. Gure artean ezberdinak gabela diote, baina ez dago ibai ez eta mendirik banatzen gaituenik.

3.000.000 euskal herritarrek osatzen dugun nazioak Euskal Herria izena du. 21.000 km² barna bizi gara nahiz eta bi estatu eta lau zatitan banatzen gaituzten. Ez gaituzte ulertzen, baina gure izate eta nortasuna ezabatzeko helburuari eusten diote, oso modu eta era ezberdinetan tratatzen gaituzten harren.

Lapurdi Behe Nafarroa eta Zuberoan; Ikurriña mamiz hustu eta folkloreaken baitan ito nahi duten ikur gisa darabilte, betiere izaera ofizialeko kokaguneetatik urrun.

Nafarroa Garaian; Ikurriña legez debekaturiko ikurra da. Beraz ez dago euskal ikur hau eraikin publikoetan agertzerik. Gainera, lurralde hori kudeatzen duten administrazioetatik, eraikin publikoetan espainiar ikurra jartzera behartu nahi gaituzte.

Araba Bizkaia eta Gipuzkoan berriz, Ikurriña, Espainiar agintearen menpeko ikurra dela agertu nahian, legez behartu nahi gaituzte instituzio publiko guztietan Ikurriñaren alboan Espainiar bandera jartzera. Eta horren adibideak hiru herrialdeetako instituzio ezberdinetan aurkitu ditzakegu, bai Udaletan bai eta Foru Aldundietan.

Euskal Herria desagerrarazi nahi dute eta horretarako euskal herritarrak desagerrarazi behar dituzte. Horregatik inposatzen dizkigute beraien ikurrak, gureak bailira hartu ditzagun, gureak direla sinetsi dezagun. Gure ikurrekin batera agertzen dizkigute, hasieran pareko bailira, ondoren mendeko izateko.

Geurea Ikurriña! Ikurriñak Euskal Herri osoa eta euskal gizartearen gehiengoa batzen duen bitartean, espainiar banderak, inposaketa, errepresioa eta erabakitzeko dugun eskubidearen ukazioa barnebiltzen ditu. Hego Euskal Herrian, bandera espainiarra da gatazka eta talka sortzaile den ikurra. Horregatik gure ustetan, euskal instituzioetan Ikurriñak egon behar du, beste euskal ikurrekin batera eta ez inposaturiko atzerriko banderek.

Euskal Herritarroi dagokigu gureak diren nortasun ikurren defentsa burutzea. Ez gara espainiarrak ez eta frantsesak, euskal herritarrak gara eta gure herriaren eta bere etorkizunaren jabe izan nahi dugu.



Hau dela eta ondorengo adierazpenak aurkezten dizkiogu osoko bilkurari onar ditzan:

- Udal honetatik, euskal nortasuna eta gure nazioaren izatea ukatu nahi dutenen aurrean zutitzeko deia luzatzen diogu euskal jendarteari. Inposaketan aurrean herri gisa erantzutea ezinbestekoa da eta zentzu honetan antolatzen diren egitasmo guztietan parte hartzeko deia luzatzen dugu.
- Udaletik, Euskal Herriaren aitortza eta burujabetza lortzeko lan egin, eta euskal herritarron nortasun eta identitate zeinuak sustatzeko konpromisoa hartzen dugu. Nazio gisa agertzen gaituzten ikurrak babestu eta zabaltzeko neurri zehatzak abian jarriaz:
 - Udal honek, herriko jaietan nahiz Aberri egunaren testu inguruan, herritarrei Ikurriña eta euskal ikurrak etxetako balkoietan zintzilikatze deia egingo die.
 - Udal honek, Ikurriñaren erabilera sustatzeko bitartekoak jarriko ditu.
 - Udal honek inposaketaren aurrean, herritarrak kalera ateratzea deituko ditu:
 - **2013ko martxoaren 9an, eguerdiko 12:00etan INPOSAKETARIK EZ, GEUREA IKURRIÑA!** Lelopean, Tolosan egitekoa den manifestazioarekin bat egin eta herritarrak parte hartzera deitzen ditu.
- EUSKAL HERRIA, IZENA ETA IZANA elkar uztartzea ezinbestekoa da gure herriaren etorkizunerako. Horregatik, egunez egun gure izatearen isla diren nortasun ikurrak agertzea, aldarrikatzea eta erabiltzea bere biziko garrantzia du gure herriarentzat. Bide berean, Euskal Herri osoko herritarrei inposaketari aurre egiteko deia luzatzen dizuegu. Estatuetatik eratorririko inposaketak salatuaz eta geureak diren nortasun ikurrak erabili eta zabalduaz. Bakoitzak bere esparrutik euskal herritarron eskubideen defentsan aritzeko beharra agertu nahi dugu.

INPOSAKETARIK EZ! GEUREA IKURRIÑA!

Euskal Herrian 2013ko otsailaren 14ean.



SINATZAILEAK:

ARALAR
EUSKO ALKARTASUNA
EZKER ABERTZALEA
EHNE
ELA
LAB
AHT GELDITU ELKARLANA
AUTOESKOLA ANTIKAPITALISTA
BAI EUSKAL HERRIARI
BILGUNE FEMINISTA

ESAIT
ETXERAT
EUSKAL HERRIA SOZIALISTA
EUSKAL HERRIAN EUSKARAZ
EZKER ABERTZALEKO GAZTEAK
GALTZAUNDI
GAZTE ABERTZALEAK
HERRIRA
IKASLE ABERTZALEAK
JATORKIN



IV ERANSKINA -- ANEXO IV



ZIZURKILGO UDALA

2013ko Martxoak 8a - Adierazpen Instituzionala.

Zizurkilgo Udaleko Bildu udal-taldeak honako adierazpen instituzionala aurkezten du, 2013ko martxoaren 8ko Emakumeen Nazioarteko eguna dela-eta:

Euskal Herriko emakumeak krisi sistemiko batean murgilduta bizi dira, eta, egoera horren aurrean, Zizurkilgo Udal honetatik gogora ekarri nahi dugu martxoaren 8ko oroitzapenak esparru jakin batean kokatu behar direla, hain zuzen ere feministek emakume guztiarentzako eskubideen alde betidanik sustatutako aldarrikapenaren eta erresistentziaren esparruan.

Emakume feministek 1908an aldarrikatutako errebindikazio horrek indarrean jarraitzen du 2013an, are indar handiagoarekin gainera, eta horregatik lanean jarraitu behar dugu, era askotara zapaltzen eta menderatzen gaituen sistema kapitalista eta patriarkala errotik aldatzeko.

Eta borroka hori are garrantzitsuagoa da, halaber, behin eta berriz aplikatzen ari diren dekretuak, erreformak eta gizarte-murrizketak kontuan hartzen baditugu, urtetako borrokan gizartearen, lanaren, ekonomiaren eta politikaren arloetan irabazitako eskubideen zuzeneko galera dakarten neurrian. Finantzek eztanda egin eta zorraren iruzurra nabarmendu aurretik, emakumeok bide luzea genuen egiteko, eskubide guztiak geureganatu eta lortzeko. Alabaina, une honetan atzera egiten ari gara, diskurtso atzerakoi batek emakumeok berriz ere adingabe moduan tratatu nahi gaituelako, erabakitze gaitasunik gabe eta bizimodu prekario batera kondenatuta.

Atzerakada horren adierazgarri ditugu, batetik, abortuaren legearen erreforma iragartzen ari direla, erreforma ultrakontserbadorea eta eliza katolikoaren agintarien eskutik datorrena, eta, bestetik, inoren laguntza behar duten pertsonak zaintzeko laguntzetarako egundoko murrizketak, lan horren karga berriz ere familien eta familien barruan, emakumeen esku utziko duena, eta, horrenbestez, emakumeok prekaritate handiko eta errekonozimendu txikiko jardun horretan aritzera behartuko gaituena.

Urtero-urtero, martxoaren 8an emakumeok borroka feminista eguneratzen dugu, mundu berri bat sortzeko bidean. Mundu berri horretan, emakumeok gure bizitzaren eta gure gorputzaren jabe izango gara, bizimodu duina izango dugu, gure orain ekonomiko eta soziala eraikiko dugu, eta, edonon gaudela ere, subjektu politikoak eta etorkizun politikoaren zuzeneko eragileak izango gara.

Gure ustez, xede horiek guztiak lortzeko, funtsezkoa eta estrategikoa da erakundeek berdintasunerako politika publikoak lortzeko baliabideak jartzea, eta, ildo horretan, argi eta garbi adierazi nahi dugu toki-erakundearen eskutik xede horretarako programak eta baliabideak kentzeko asmoarekin etor litekeen erreforma oro guztiz gaitzetsi egingo dugula.

Gainera, Udal honek honako lehentasun hauek ere baditu:



ZIZURKILGO UDALA


- berdintasunerako politika publikoak garatzea, politika horien eskura aurrekontu eta teknikari egokiak jarritz.
- programak eta proiektuak aztertu, garatu eta ebaluatzerakoan udalaren gobernu-ekintza orok genero-ikuspegia kontuan hartzeko neurriak bultzatzea.
- emakumeen elkarrekin eta mugimendu feministarekin elkarrekin elkarrekin elkarrekin politikoa indartzea.
- indarkeria matxistaren aurka borrokatzeko politikak eta berdintasunerako politikak etengabe uztartzea.

Azkenik, mugimendu feministak betidanik emakumeen eskubideen alde egindako erresistentzia eta borroka eskertu nahi dugu, eta, ildo horretatik, mugimendu horrek gure herrian martxoaren 8rako egindako deialdiarekin bat egiten dugu (zehaztu).



V ERANSKINA -- ANEXO V

197/2006 DOKTRINA: ZIGOR GEHIGARRIAREN ANKERKERIA



ZIZURKILGO UDALA

2006ean, Espainiako Auzitegi Gorenak, kode penal zaharrean epaituriko presoek zegozkien erredentzioak, kode hark ezartzen zuen bete beharreko gehieneko 30 urteei baino, ezarritako kondena osoari aplikatzeko doktrina ebatzi zuen. Hau da, 1973-ko kode penalak, kondena kunplitzeko gehieneko urte kopurua 30 urteetan ezartzen zuen eta erredentzioen bidez, bete beharreko urte kopurua jaisten zen. Erredentzioen aplikazioak bete beharreko kondena 15 urteetan ezartzen zuen automatikoki, eta horrez gain, erredentzio gehiago eskuratu zitezkeen ikasketekin edo bestelako jarduerekin, bete beharreko kartzelaldi denbora jaitziz.

1995ean eta 2003an kode penalean aldaketak eman ziren. Aldaketa horiek euskal presoen aurkako neurriak gogortzera bideraturik zeuden, preso diren pertsonen dagozkien eskubideak salbuespenez murriztuz. 95-ean kondena betetzeko urte mugak 30, 25 eta 20 urteetan ezarri, eta erredentzioak desagertu egin ziren. 2003-an berriz, kondena betetzeko muga 40 urtera igo zen.

Kode penal berriak ezarritako neurriak ez direnez erretroaktiboak, hau da, ezin direnez aplikatu aurretiaz epaituriko pertsonen aurka, Auzitegi Gorenak 197/2006 doktrina erabili zuen ateratzear zeuden euskal presoek kondena luzatzeko.

Ordutik hona, 83 euskal preso politikori ezarri zaie doktrina. Horietako 12, garaian ezarritako kondenez gain doktrinaren kondena luzapena bete ostean atera dira kalera. Gaur egun, 67 dira doktrina hau aplikaturik kartzelan aurkitzen diren presoak. Horietatik 54 kondenaren luzapena ari dira betetzen, eta beste 13-ri doktrina aplikatu zaie ezarri zitzaizkien kondena bete aurretik. Beste 4 lagun kalean daude, baina doktrina ezarria dute.

Doktrina honen bidez, euskal presoen aurka bizi arteko zigorra aplikatzen da. Ondorioak aski krudelak dira, 95 izanik 20 urte baino gehiagoko espetxealdiak igaro dituzten pertsonak. Gaur egun 29 presok 25 urte baino gehiago daramazkete espetxean. Neurri honek, oinarrizko giza eskubide denak urratzen ditu. 20 urtetik gora espetxean emateak itzuliezinak diren ondorio fisiko eta psikologikoak dakartzala frogatua dago.

ESPAINIAKO AUZITEGI KONSTITUZIONALAREN EBAZPENA 197/2006 DOKTRINARI BURUZ

2012an Auzitegi Konstituzional espainolak, 2006an indarrean jarritako doktrinaren kontrako helegiteak ebatzi ditu, doktrinaren aplikazioa babestuz. Bere ebazpenean ez du doktrinaren funtsari buruzko azalpenik ematen eta irizpidea aldatzeko aukera, tribunalei dagokiela argudiatzen du.

Auzitegi Konstituzionalak, 47 erabaki jakinarazi ditu (beste 20 kasu erabakitzeke). Horietatik 3 tramitera hartzea ukatuak izan dira, 22 tramitera onartuak, eta beste 3ren kasuan anparoa onartua izan da, hiru preso hauek kalera atera direlarik. Beste 19 kasu ukatuak izan dira.

ESTRASBURGOKO GIZA ESKUBIDEEN TRIBUNALAREN EBAZPENA

Estrasburgoko Giza Eskubideen Tribunalak ordea. Ines Del Río euskal presoaren kasuan oinarriturik, 197/2006 doktrina ez legezkoa eta oinarrizko eskubideen aurkakoa dela ebatzi zuen 2012ko uztailan. Ebazpena, AHO BATEKOA izan zen.

Tribunal honen ebazpenak, doktrinak, askatasunerako eta segurtasunerako oinarrizko eskubideak urratzen dituela dio, eta ez dela legezkoa aurrez ezarritako zigorra luzatzea. Ines del Río preso berehala aske uztea eta 30.000 euroekin kalte moralak berrezartzea ebazten du era berean.



ZIZURKILGO UDALA

Ebazpenaren eragina ez da Inesen kasura mugatzen, doktrinaren funtsa aztertu ondoren eta berau jotzen bait du, ez legezko. Horrek doktrina bera, bertan behera uzteko bidea zabaltzen du; formalki Espainiar gobernuaren esku dagoen erabakia da hori.

Edonola ere, Ines del Rioren inguruko ebazpena LOTESLEA DA, Europako Giza Eskubideen Konbentzioaren 46. artikulua, ESTATUAK GORTEAREN EBAZPENAK ONARTZERA BEHATZEN BAIT DITU.

Espainiako Estatuak helegitea tarteratu du. Helegite hau, Estrasburgoko Giza Eskubideen Tribunallean berrikusiko da datorren martxoaren 20. Tarte horretan Ines del Rio kartzelan mantentzera ere, espainiar estatuak egiten duen beste lege-hauste bat gehiago da.

Estatu batek Estrasburgoko Tribunalaren ebazpen bat ez onartzea eskandalu politiko eta juridiko izugarria da. Espainiar estatuak gai honen aurrean duen jarrerak agerian uzten du euskal presoek aurka salbuespeneko legedia eta bitartekoak aplikatzen direla. Presoek eta beraien senitartekoei dituzten eskubideak urratuaz eta nazioarteko Giza Eskubideen Arauen gainetik pasaz.

Honen aurrean, ^{ZIZURKIL}.....ko Udalak honako eraki hau hartzen du:

- 1.- 2012ko uztailan, Estrasburgoko Giza Eskubideen Tribunalak, aho batez, Espainiako Auzitegi Konstituzionalaren 197/2006 doktrina (Parot doktrina gisa ezagutu dena), ez legezkoa eta oinarritzko eskubideen aurkakoa dela ebatzi ondoren, berau bertan behera uzteko eskatzen du udal honek. Ondorioz eta nazioarteko giza eskubideen legeria aplikatuz, 197/2006 doktrina aplikatu zaien euskal preso guztiak berehalakoan aske uzteko eskatzen dugu.
- 2.- Euskal Herrian bizi dugun itzaropen eta konponbide aukeraren aurrean, euskal presoek aurkako salbuespeneko legeria bertan behera uzteko eskatzen du udal honek.
- 3.- Ebazpen honen berri, herritarrei eta Europako Kontseiluko Giza Eskubideetarako Komisionatua den Nils Muiznieks Jaunari ematea erabakitzen da.

Euskal Herrian, 2013ko otsailan